

hoy escribe

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / Idazlea

nire txanda

Ikurrina kanpora

Lurdako mirariak beti ari

Bernadette Soubirous-en ondoko gertakari miresgarriak ahiturik zeudela uste zutenak, oker zeuden. 1858an Massabielleko harpean lotu zen mirari-katea, Euskal Herrian bederen ez da eten.

Batek anti-euskaldun porrotakuek utzi gintuzten. Ez lan-harremnan markorik, eta ez deaburrik. Berek Espainian nahi zuten jokatu. Argi eta garbi esan ziguten: «España Una y Grande».

Gero «progre»ek utzi gintuzten: «la ikurrina es un trapo», eta abar. Eta joan egin ziren.

Ondoren errejonialisten txanda jasan genuen. «Hay que llegar a sentirse cómodos en España» aldarrikatu zuten, «hay que evitar incidentes», «hay que repartir piper-poto en los cuarteles». Eta beste mordo handi batek esan zigun «agur».

Baina gizatalde garrantzitsu bat gelditzen zen oraindik, «politika egitea» zer den ulertu ezinik, eta «España» proiektu miresgarritik at.

Eta horretarako. Blanche heriotza askok zuzenetsi ez duela erreparaturik, «espíritu de Ermua» izenekoa asmatu da. Alegia, Ermuko zaingotziaren heriotza gaitzetsi behar dela, bai. Baina besterik ez. Herri zafratu honetan beste hilketak politikorik sekula gertatu ez balitz bezala. «Basajauna»ena, adibidez, edo Hernandorena, edo-ta Salegirena orain, edo beste hamaikarena aurreko aste eta urteetan... Ixo! Abertzaleen heriotzen gaitzespina ez baita «Ermuko izpiritu» delakoa sartzen.

Eta beste mordo bat inguratu da ofizialistengana.



Herri mindu hau, behin eta berriz garaiturik eta txikiturik, eta mila aldiz ehorzketarako zerraldoan sarturik, bizirik bizirik agertzen baita!

Baina aski izan ez. Eta «video-kamarene» legea kale-ratu da egun hauetan. Bada-jozko, Ecijako, Valdetroncoko, Quintanapallako, Robledal de la Dehesako, eta Oretetako kale-borrorikak erre egiteko. *Café para todos*, beti bezala.

Eta desordenu horietan senton eta atso anakronikoak besterik inor ez dela nahastan jakinik, hamaika urte gartzela ezarri diote hogeitau inguruko agure horietako bati.

Aski izan ez, ordea. Eta ezker abertzalearen atzean nor dagoen azaltzen hasi dira (hamaikagarren aldiz, jakina).

Gure atzean «trata de blancas» praktikak duen jendilajea dago. Negozio ilunetako «diru beltza»-ren alorrean mogitzen direnak ez dira urri. Eta manifestazioetan, jakina denez, gazteei eta gaztetxoek dirua barra-barra banatzen dieten putakumeak ez dira urri. Eta, noski, beste mordoska bat «integratuko dute» horretara.

Hori bakarrik ez. Arrasateko eskandaloz arnairua eman behar zitzaion: terroristak nabarmen eta ezagun bat, alkate. *Hasta ahí podríamos llegar...* Eta PNVren eta EAren laguntza-

rekin (hauek zinez sinesten baitute —kostata, adiskideok— Ezker Abertzalea dela arazo nagusia, eta ez Espainia eta Frantzia estatuak) etxera bidali dute Xabier Zubizarreta jauna. Bapo, mutilak!

Eta horrela «garbiketa anti-etnikoak» burutu dira; baita burutuko ere, Euskal Herria «Norte españolísimo» bihurtu arte.

Baina ez da aski. Ezer ez da aski izango. Hemen, jaun-andereok, Lurdako Mirria gertatzen ari baita egunero, gure begien aurrean.

Herri mindu hau, behin eta berriz garaiturik eta txikiturik, eta mila aldiz ehorzketarako zerraldoan sarturik, bizirik bizirik agertzen baita!

Eta «Gora Euskal Herria Askatua» oihua, gero eta ozenago eta maizago entzuten baita gure bazterretan.

Bakea behar dugu» leloa, euskara hutsez eta ikurrina marraztu ditute batek gurean, gero udaletzeko balakoian eskegitzeko. Zenbait egun lehenago ni neuz joan nintzen udaletxera, eskutuan alkatearen azkenetako bandan baten ale bi, erdara hutsean zeudenak, etxeko hormatik kendu eta hari eramateko. Itxura denez, udaletxean inork ez daki idazten hurrengo astelehenean, hilak honenbeste, goizeko bederatzietatik hamaiketara bitartean ura kenduko dutela. Legeak horrela egin dezaten eskatzen die, baina ez dakite. Eta kitto!



Edorta JIMENEZ Idazlea

Horra, bada, gurean, Mundakan, euskara zertarako nahi duten eta legeaz, Estatutu zorioneko horretaz, zer egiten duten.

Argi dago: euskara «bakea» eskatzeko eta «HB kanpora» aldarrikatzeko baino ez bada, bako hori lortutakoan —horretarako ezinbesteko dirulirik horiek HB kanpora atera behar dutela, nondik nora argitu ez badigute ere— euskaraz lehengo moduan egingo lukete horiek, hau da, zaku rekin eta umeekin. Ez bedi bakea etor, bier bitartean alfabetatu egin baitzaizkigu udaletxean, hatzez idazten dute—eta «Mundaka'ko Udala» apstrofe eta guzti idazten dutenek. Iram eta iska egiten digu Mundakako Alkateak euskaldunoi.

Jakina, Bilbon bakea hatzez eskatu dut: eta, ezin mundakar ez da nor Aldun Nagusiari ortografia zuzentzeko. Ados nago. Areago esango nuke, Bilbon zer, Mundakan berori egin dezaten eskatzera nator gaur «Ikurrina kanpora» a darrikatuz.

Hambost egun barru egunkari honetan irakurriko dituzuek aurreratzeko gogo bariak gure hiriburuan etzainek baderen normalitate ezartzeko aurrekontuetako diru batzuk ketan eta pelotakadatan eralgiko diruzte, kasik ziur. Bada, gurean berdín egin dezaten eskatzen dut, ez baitut eskizofreniko bizi nahi. Mundakan bandera espainola ikurrinarekin batera ipintzeko eskatze dute, edo bestela ikurrina kentzeko, horrela normalitate konstituzionalaren barruan funtzionatzeko.

Bien bitartean ez dugu guk zertan inoren eskizofrenia pairatu behar, San Pedro jailetan polito dago Nafarroako bandera ipintzeko gurean bakoian. Urteko beste berrogeita hamaika astetan hobeto gaude «nafarrek eurek ez dabe gura izan» esan eta pozik bizirik. Bada, ez. Hori ere kanpora, ea argitzen duguten non bizi garen.

Argitu, PPK udal hauteskondeetako zereztanda aurkezten duen egunean argituko dira guzuzak. Orduan jakingo dugu «bakea behar dugu» esaldiari eta ikurrintxo ume bati txalo egiten dietenari zenbat diren benetako jeltzaleak.

hemeroteca

Cambio 16

El derecho a la intimidad
Juan María Bandrés

Toda legislación o toda decisión política que ponga en riesgo la intimidad y los derechos humanos en general debe ser siempre muy meditada y valorada.

Hay que manejar dos ideas. En primer lugar, legislar y tomar decisiones políticas al calor de un acontecimiento en concreto siempre me ha parecido peligroso. Al final, termina incorporándose a los códigos penales o a las

leyes elementos que pueden ser útiles en un momento dado, pero que no deben tener un carácter permanente. Sin embargo, y generalmente, una vez incorporados a las leyes se convierten en permanentes.

En segundo lugar, estamos haciendo la legislación protectora de la intimidad, pero como la tecnología avanza mucho más rápidamente que el pensamiento humano, nos encontramos que a cada progreso para proteger nuestra intimidad, la propia técnica nos supera y nos ofrece nuevos medios de penetrar en esa intimidad.

A mí me parece bien que un helicóptero o cualquier

medio sofisticado pueda detectar la comisión de un delito, como la localización de un zulo o la guardia de un comando terrorista. Si esto ayuda y ampara a los ciudadanos, bienvenidos sean estos sistemas.

Lo que debemos lamentar es que esos procedimientos no tienen corazón en su función y actúan de forma mecánica. Se puede detectar un gran tráfico de drogas o a narcotraficantes, en un lugar determinado, pero también se puede estar filmando las efusiones amorosas de una pareja en un rincón de la playa o en propios domicilios particulares, como ya ha ocurrido.

Eso es muy grave y llama a la reflexión.

El otro día, en la Universidad Menéndez Pelayo de Santander, se explicaba cómo mediante Internet cualquier persona puede penetrar en el disco duro de tu ordenador y acceder, además de robar toda la información que uno almacena, a tu correspondencia y trasladarla a lugar que sea. Esto, técnicamente, es posible hoy, y quiere decir que se están creando sistemas imposibles de controlar. También habrá que legislar la intrusión en tu propia intimidad.

El legislador que va a legislar con vocación de per-

manencia no puede funcionar a la velocidad de un cohete. Tiene que ser más flexible y más coherente, porque lo que pretende hacer es mucho más serio y nos va a afectar a todos por mucho tiempo.

Tampoco por la emotividad del momento se puede caer en la euforia de los acontecimientos, ni replantearse, aunque sectores de la sociedad lo pidan, la pena de muerte para los terroristas por muy execrables sean los crímenes que hayan podido cometer.

El político y el legislador tienen que calibrar en todo momento las repercusiones que las leyes van a tener, no solamente frente al delin-

cuente, sino también para la propia sociedad. Las leyes nunca deben suponer un retroceso de las libertades individuales y colectivas, pero sí el instrumento de defensa y de respuesta frente al crimen y al delito.

Mientras gobierne el Partido Socialista hacia cosas de éstas y las criticaba el Partido Popular, incluso acudieron al Tribunal Constitucional para protestar contra leyes que les parecían abusivas. Ahora que gobierna el PP, son más proclives a tomar medidas, porque les sale de dentro y porque la derecha siempre ha sido más favorable a los controles, a la fiscalización, a la vigilancia e inspección de la gente.